

Txillardegi ikasgeletara

Norbait hil ostein gauza onak besterik ez omen da esaten. Hari aurpegiatzeko ezer bazenuen, beranduegi da, akabo. Hobe duzu isilik geratu, edo zure ausarkeria koldarra aurpegiatuko dizute denek. Baina joera horrek badu beste alde ere: Van Gogh-i, Kafkari eta Dickinsoni nola, zendu ondoren soilik ematen zaizkio askori bizi artean uka-

tutako aitortza, loreak eta arrazoia. Eta zenbaiti, orduan ere ez. Multzo horretakoa da Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegi. Haren lana eta ekarpena aldarrikatu duenik beti izan bada ere –abian da Donostiako Udal Liburutegiari haren izena jartzeko eskatzen duen mugimendua–, oraintsu, eta euskara batuaren 50. urteurrenaren aitzakian, hasi dira ahots horiek ozendu eta sen-

dotzen. AEK-k Korrikaren aitzakian osatzen duen dokumentala berari eskaini izana da horren froga. Kote Camachok zuzendu du lana, eta Txillardegiren agerpen publikoak eta adierazpenak dira ardatz nagusia.

Asmoa besterik bazen ere, dokumental balio du, halaber, artxiboko irudien bidez *millennial*-oi ETB noizbait hutsetik sor-tu zela gogorarazteko. Gauza ba-

itzuk nabarmen aldatu dira –badi- dira emakume batzuk euskalgin-tzako ardura karguetan, eta Mi-kel Olazabalek orduko kalpar eta bizar oparoa galdu ditu bidean–, eta beste batzuk ez horrenbeste: ETBk gaztelaniazko edukia sor-tzen jarraitzen du (nahiz eta er-darazko kateen eskaintza areago-tu den), eta, tarteka, euskaldunei gaztelaniaz erantzuteko eskatzen zaie oraindik.

Baina Txillardegiri ukatutako-aren erreparazioan pausoa izate-az gain, ETBren ikusleak xaxa-tzeko izan dezakeen gaitasunaz landa, dokumental laburrak badu beste alde praktikoago bat. Badi- ra ikus-entzunezkoari zukua

ateratzen dakiten komunikatzaile paregabeak, hitz egiten hasi orduko harrapatzen gaituztenak. Eta Txillardegi, beste gauza askoren artean, bazen hori ere. Haren ateraldiak eta anekdotak entzunda eta dokumental duen tonu epikoarekin, puskaz interesgarriago bihurtzen da testuliburu- ruan urruneko kontu aspergarria dirudiena: euskara batuaren sorrera, Txillardegiren beraren literatura ibilbidea, euskalgingintza frankimotik hona egin duen bidea... Youtuben dago, esku-eskura, eta nerabeek jasateko moduko iraupena du, gainera. Jar dezatela, mesedez, eskola eta institutuetan.



EKOGRAFIAK
Lander Arretxea

ANALISIA
Urtzi Urkizu



Herria (des)egiten duten lehiaketak

Hoge hilabete joan dira ETB1ek azkeneko lehiaketa emititu zutenetik –*Burubero fest*, 2017ko ekainaren amaieran–. ETB3k saiakera lotsati bat egin zuen *3txulo jokoan* lehiaketarekin, baina 2017ko irailetik abendura baino ez zuen iraun. Ez dago euskarazko lehiaketarik telebistan, eta horrek alboko kalteak ditu. Telesailen faltak dituen ondorioen aldean, ez dira hain agerikoak; baina oso kezagarriak, edonola ere.

Mihiluze, Hizkamizka edo *Burubero* lehiaketetan –batzuk aipatzearren–, lasai asko parte har dezakeen Zuberoako, Nafarroa Behereko edo Lapurdiko herritar batek. Gaur egun, gaztelaniaren ezagutza bikaina izanda ere, nekez lortuko du onik ateratzea ETB2ko *Atrápame si puedes* lehiaketan –Arabán, Bizkaian eta Gipuzkoan batez beste %12ko ikusle kuota inguru dauka–. Galdera asko eta asko euskararen herriatik kanpo imaginariokoak direlako. Madrilgo telebisten eta komunikabide nagusien gaiak, pertsonaiak, kantak, tokiak eta erreferentziak direlako sarri aurkezlearen galderetan. Ez hori bakarrik. Paradoxa geografiko bat, adibide moduan: aurkezleak

kontu hartu zion Uruguain jaio eta *El conquis* saioko partaide izandako lehiakide bati –umorez– ez zuelako Sevillako plaza bat ezagutzen –*Atrápame si puedes* grabatzen den hiritik 915 kilometrorra dago Andaluziako hiria–. Bistan denez, ez zion kontu hartu Baionako, Angeluko edo Miarritzeko tokirik ezagutzen ez zuelako –*Atrápame si puedes* grabatzen den hiritik 50 kilometro ra daude–. Hori baita ETBren ikusleari gaztelaniazko lehiaketarekin transmititzen zaiona: 900 kilometrorra dagoena *gurea* da, eta 50 kilometrorra dagoena ez da existitzen.

Horrenbestez, Gaztela eta Leongo, Kantabriako, Errioxako eta Aragoiko herritarrek askoz aukera gehiago dituzte ETBko lehiaketa bakarrean sos batzuk irabazteko, Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako herritarrek baino. Euskal kulturarekin lotuta eta Espainiakotik deskonektatuta dauden Hego Euskal Herriko lehiakideek ere desabantailen jokatu dute, bidenabar. Eta, bide batez, ETBk imaginario bat elikatzen jarraituko du ETB2ko lehiaketarekin, neurri batean euskarari eta euskal kulturari bizkarra emanda.

Kontraesanetan ito gabe –edo



ETB1eko *Burubero* lehiaketako irudi bat. 2017an kendu zuten programaziotik. BERRIA

itota –, ez dago ukatzerik Hego Euskal Herriko ikus-entzule askok Espainiako erreferentziaz betetako lehiaketekin gozatuko dutenik. Hezigarriak ere badira, kasu askotan: TVEko *Saber y ganar*, kasurako. Horikeriaren etenik gabeko buklet bat dirudi askotan Tele5k, baina salbuespen batekin: *Pasapalabra* lehiaketa. Saio horrekin asko ikas dezake ikusleak: kultura orokorraz eta gaztelaniazko hiztegiak eta definizioak. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, %20ko ikusle kuota du programa horrek. Eta kasu gehiegitan –ez omerako, preseski–, ETBk Tele5 kopiatzeko saiakerak egin baldin baditu, ez da ulertzekoa zergatik ez duten *Pasapalabra* lehiaketaren eredu euskarara moldatu. Modu horretan, euskarazko definizioak eta kantak, euskararen herriko arte-lanak eta tokiak jasoko litzuzke ikus-entzuleak.

'Pasapalabra' lehiaketa ikusten duten haur euskaldunak ordu berean gauza bera euskaraz ikusten egongo balira, euskararen herriari buruzko jakinduria barneratuko lukete. Ikusiko lukete zein dibertigarria den euskaratik eta euskaraz ikastea

Formatu familiarra da lehiaketa, eta Hego Euskal Herriko haur euskaldun asko egongo dira ziur asko arratsaldero *Pasapalabra* ikusten. Besteak beste, ez dutelako euskarazkorik ikusteko. Eta ikasiko dituzte Cervantesen hizkuntzan kontzeptu asko, eta tarte atsegin bat pasatu senideekin.

Gauza bera ordu berean euskaraz ikusten egongo balira, haur horiek –baita senide helduek ere– euskararen herriari buruzko jakinduria barneratuko lukete, saioz saio, egunez egun. Gertuago sentituko litzuzkete Urruñako, Baigorriko eta Atharratzeko herritarrek, tokiak, hitzak eta hizkerak. Ikusiko lukete zein dibertigarria den euskaratik eta euskaraz ikastea. Euskara eskolako betebeharrak lotzen duten Euskal Herriko haur eta gazteek jostatzeko aukerak ikusi beharko litzuzkete telebistan. Helduek ere bai, Sevillatik baino gertuago.

